

FUNDACIÓN KIROLARABA FUNDAZIOA

Goi mailako klubentzako laguntza deialdia.

Lehenengoa.- Xedea eta helburua.

Deialdi honen helburua da Kirolaraba Fundazioak Arabako Lurralde Historikoan kokatuta dauden kirol klub eta elkarteei ematen dizkien laguntzak arautzea, haiek Eusko Jaurlaritzako Kirol Erakundearen Erregistroan izena eman badute, Arabako lurraldeko kirol federazioei atxikita badaude eta kategoria absolutuan goi mailako taldeak badituzte.

Laguntza honen helburua da bigarren oinarrian deskribatzen diren baldintzak 2019an zehar betetzen dituzten kirol klub eta elkarteek nahiko baliabide edukitzea entrenamenduak eta dagozkien lehiaketa erregularrak egiteko 2019an edo 2018ko irailaren 1etik 2019ko abuztuaren 31ra bitarteko denboraldian.

Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuaren bidez (ALHAO, 123. zk., 2015eko urriaren 21ekoa) arautuko da deialdi hau. Foru dekretu horren bidez, Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren eskumen esparruan, lehia bidez emango diren dirulaguntzei aplikatu dakizkiekeen oinarri arau orokorrak onartu ziren; deialdia hemen jasotako eduki eta prozedurara egokituko da.

Deialdi honetan adierazitako irizpideak betetzen dituzten entitate eskatzaile guztiak talde bakar batean bilduko dira.

Bigarrena.- Erakunde onuradunak eta baztertuak.

1. Entitate onuradunak:

1.1.- Kirol talde eta/edo elkarteek ondoko baldintza hauek bete behar dituzte mota honetako laguntzak jaso ahal izateko:

- a) Arabako Lurralde Historikoan kokatuta egotea.
- b) Eusko Jaurlaritzako Kirol Erakundearen Erregistroan inskribatuta egotea.
- c) Arabako lurraldeko kirol federazioetako bati atxikita egotea.

d.1) Lehiaketa ofizialeko jardueretan parte hartzea edo parte hartu izana, betiere kategoria absolutuan, kirol mota edo espezialitate beraren mailarik gorenean, 2018ko irailaren 1etik 2019ko abuztuaren 31ra bitarteko denboraldian.

Lehiaketak eskaera aurkezteko garaian egiten egon beharko dira edo, hala badagokio, eskaera aurkezteko data baino lehenago eginda egon behar dira.

d.2) 2018an lehiaketa ofizial federatu batean parte hartu izana, hala nola Espainiako txapelketa, kopa, open edo holakoetan, betiere kategoria absolutuan, lehiaketa mailarik gorenean eta beti autonomia erkidegoa baino goragoko maila batean.

Laguntza jaso dezaketen taldekako lehiaketak ohikoak eta erregularrak dira. Ondorioz, baztertuta daude kirol arrakasta lortzeko asmoa duten guztiak, hala nola Europako edo munduko txapelketak, Erregearen edo Erreginaren kopa, autonomia erkidegoko selekzioak, etab.

Betiere, lehiaketa horiek lehiaketa mailarik gorenei dagozkiela iritziko da eta, horren ondorioz, baztertuta egongo lirateke honelako lehiaketak: 2 mailako, 3 mailako edo B mailako txapelketak, oinarritzko mailako txapelketak, 2. mailako txapelketak, autonomia erkidegoetako selekzioak eta antzekoak.

1.2.- Salbuespenak:

- a) Salbuespen gisa, xakean, eskubaloian, emakumezkoen txirrindularitzan, kirol egokituan, futboleak, herri kiroletan, errugbian eta waterpoloan, autonomia erkidegoko lehiaketan parte hartzea laguntza hau jaso dezaketen jardueren artean sartuko da.
- b) Salbuespen gisa, emakumezkoen txirrindularitzan eta kirol egokituan, kadete eta gazte kategorietako lehiaketan parte hartzea laguntza hau jaso dezaketen jardueren artean sartuko da.
- c) "Zazpi Herralde" izeneko lehiaketan parte hartzea Espainiako txapelketan parte hartzearen parekoa izango da.
- d) Aurkeztutako modalitate eta/edo espezialitatea ez badago existitzen diren federazioetan jasota eta ofizialki aitortuta, orduan fundazioaren patronatuari ebazpen proposamena aurkeztu behar dion kide anitzeko organoak existitzen diren federazioen arteko baliokide bat erreferentzia gisa hartu ahalko du, egokitzat joz gero.
- e) Beren ezaugarri teknikoengatik zenbait kirolarik kategoría absolutua baino beheragokoetan parte har dezaketen kasuetan, idatziz justifikatu eta gero, kadete eta gazte kategoriei dagokien adineko kirolariak aritzea baimenduko da.

1.3.- Ez da onartuko hauek egindako eskaerarik:

- * Kirol erakunde profesionalak; halakotzat hartzen dira indarrean dauden araudian jasotakoak (LFP, ACB, etab.)
 - * Arabako Foru Aldundiarekin babes kontratua daukaten goi mailako kirol klubak edo elkarteak.
 - * Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen egunean ez dauden kirol klubak edo elkarteak.
 - * Urriaren 19ko 11/2016 Lege Orokorrak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, IV. tituluan adierazitako arau hausteengatik zehapena jaso duten kirol klub edo elkarteak, bai eta Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, jasotzen dituen kasuetan daudenak ere.
2. Baldin eta kirol klub eta elkarteren baten eta erakunde horretako kideren baten eskaerarik jasotzen bada, eta bakoitzak dagokion deialdia kontuan hartuta egin badu eskaera, taldeak egindako eskaera eta ez banakoak egindakoa lehenetsiko da; hau da, klubaren eskaera hartuko da kontuan eta baztertu kirolariarena.

Hirugarrena.- Laguntzen kopurua

Dirulaguntzen kopuru osoak ezingo du gairitu horretara bideratutako dotazioa, 212.000,00 eurokoa, 2019ko ekitaldiko Kirolaraba fundazioaren aurrekontuari dagokiona.

Aurrekontu horrek ez du eragingo Kirolaraba fundazioak aurrekontu osoa kontsumitzeko betebeharra duenik.

Eman beharreko dirulaguntzak kalkulatu ondoren gerakina baldin badago, patronatuari ebazpen proposamena aurkeztu behar dion kide anitzeko organoak proposatu ahal izango du gerakin hori beste laguntza lerro batera edo beste gastu batera bideratzea.

Laugarrena.- Eskaeren aurkezpena.

1.- Eskaerak Fundazioaren Patronatuari zuzendu beharko zaizkio, I. eranskinean (Eskaera) ageri den ereduaren arabera. Eredu hori bere osoan eta jarraibide hauen arabera bete beharko da:

1.1.-1. orria: erakunde eskatzaileari buruzko datuak, posta bidez jakinarazpena egiteko helbidea, emandako datuak lantzeko baimena, aurkezten duen dokumentazioa adieraziz eta dokumentua sinatuz.

1.2.- 2. orria: dagokion Arabako federazioaren ziurtagiria, taldearen administrazio datuak eta heldu den lehiaketa maila adierazten dituena. Agiri hau zigilatuta egon behar da, eta aipatutako Arabako federazioko arduradunaren izenarekin eta sinadurarekin.

1.3.-3. orria: adieraziko dira taldeak kategoría absolutuan dituen kirolarien kopurua, kirol arrakasten historia, entrenamendu planaren deskribapen laburra eta parte hartu asmo duen lehiaketaren proiektua. Agiri hau klubak zigilatuta egon behar da, entrenamenduaren arduradunaren izenarekin eta sinadurarekin.

1.4.-4. orria: entrenamendu aldirako nahiz lehiaketarako gastu konputagarrien aurrekontua, gastu konputaezinen guztizko zenbatekoa eta diru sarreren guztizko aurrekontua. Agiri hau entitate eskatzailearen arduradunak sinatuta egon behar da.

1.5.-5. orria: entitate eskatzailearen ordezkariak adierazten du aipatutako entitatea ez dagoela zigortuta edo ezgaituta. Baita ere, banku kontuaren zenbakia aurkezten du, IBAN kodea adieraziz. Agiri horrek banku erakundearen zigilua izan behar du, adierazitako kontu zenbakia erakunde eskatzailearena dela ziurtatzeko moduan.

Identifikazio fiskaleko txartela edo IFZren fotokopia entitate eskatzaileari alta eman behar izanez gero baino ez da aurkeztuko.

1.6.- 6. orria: entitate eskatzailearen lan eta zerga egoerari buruzko datuak, baita eskaera aurkezteko garaian bereganatzen diren konpromisoak eta oharrak ere.

1.7.-Beharrezkoa izanez gero, "D eranskina" izeneko dokumentua bete beharko da, joan-etorri mota jakin batzuen ingurukoa.

Lehiaketei dagokien zatirako, entitate eskatzaile bakoitzak eskaera bakarra aurkeztuko du laguntza eskatzen den lehiaketa guztietarako (2018ko irailaren 1etik 2019ko abuztuaren 31ra bitarteko kirol denboraldi federatua egiteko diren lehiaketa erregularrak).

Parte hartu den lehiaketa erregular desberdinen arabera taldekatuta egon beharko dira gastuak.

Eskaerak fundazioaren egoitzan aurkeztu beharko dira (Probintzia Plaza, 5 – 3.a, PK: 01001 Vitoria-Gasteiz).

Emandako datuak bakar-bakarrik mailarik goreneko talde absolutuari buruzkoak izango dira.

2.- Betiere, jakinarazpenetarako ematen den helbidea adierazi beharko da.

3.- Laguntza hauek eskuratzeko eskaerak aurkezteak oinarri hauetan ezarritakoa formalki eta berariaz onartzen dela esan nahi du.

4.- Deialdian parte hartzen duen erakunde bakoitzak eskaera bat aurkeztu beharko du gizonezkoen kirol mota edo espezialitate bakoitzeko, beste bat emakumezkoen modalitate edo espezialitate bakoitzeko eta, hala badagokio, beste bat kirol mistoko mota edo espezialitate bakoitzeko.

5.- Deialdian parte hartzen duen erakunde bakoitzak eskaera bat aurkeztu beharko du kirol modalitate edo espezialitate bakoitzeko.

Ez da onartuko hurrengo 6. idatz zatian zerrendatuta ageri diren datu eta agiri guztiak jasotzen ez dituen eskaerarik.

Hala ere, aurkeztutako datu edo dokumentazioaren bat osatugabe badago edo aski ez bada, fundazioak eskubidea izango du eskaera aurkeztutako datuekin ebatzi edo kasuan kasuko gabezia zuzentzeko hamar eguneko epea emateko, ohartaraziz hala egin ezean eskaera bertan behera utzi dela ulertuko dela, aldez aurretik horren inguruko ebazpena emanaz.

Laguntza eskaera bat izapidetzeko onartzeak ez du esan nahi hura emateko konpromisoa dagoenik.

6.- Laguntza deialdi honetan parte hartu nahi duten irabazteko xederik gabeko kirol erakundeek honela aurkeztu beharko dituzte datu multzo hauek:

a) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzearen ziurtagiriak:

- Soldatapeko langilerik ez daukaten erakunde eskatzaileek hauexek aurkeztu beharko dituzte:
 - Zerga betebeharrak egunean dituztela frogatzen duen ziurtagiria.
 - Beren kargura soldatapeko langilerik ez daukaten adierazpena.
- Soldatapeko langileak dauzkaten erakunde eskatzaileek hauexek aurkeztu beharko dituzte:
 - Zerga betebeharrak egunean dituztela frogatzen duen ziurtagiria.
 - Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituztela frogatzen duen ziurtagiria.

b) Dagokion federazioaren ziurtagiria, 1. eranskineko 2. orrian zehazten denaren arabera.

Bosgarrena.- Eskaerak aurkezteko epea

15 eguneko epea egongo da eskaerak aurkezteko, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Seigarrena.- Laguntzak emateko irizpideak.

Datu hauek, bakar-bakarrik, laguntza eskaeraren xedea den kategoria absolutuko eta maila goreneko taldeak sortutakoei buruzkoak dira.

Gastu konputagarrien guztizko aurrekontua: gehienez 100 puntu, honela banatuta:

| Gastu konputagarriak, guztira | Puntuak |
|---|---------|
| 5.000 euro gehienez | 5 |
| 5.000,01 euro eta 10.000,00 euro bitartean | 10 |
| 10.000,01 euro eta 20.000,00 euro bitartean | 20 |
| 20.000,01 euro eta 30.000,00 euro bitartean | 30 |
| 30.000,01 euro eta 40.000,00 euro bitartean | 40 |
| 40.000,01 euro eta 50.000,00 euro bitartean | 50 |
| 50.000,01 euro eta 60.000,00 euro bitartean | 60 |
| 60.000,01 euro eta 70.000,00 euro bitartean | 70 |
| 70.000,01 euro eta 80.000,00 euro bitartean | 80 |
| 80.000,01 euro eta 90.000,00 euro bitartean | 90 |
| 90.000,01 eurotik gora | 100 |

6.1.- Apartatu honetako puntuak kalkulatzeko bakarrik, entrenamenduek sortutako gastu konputagarritzat ondoko hauek hartzen dira, baldin eta laguntza eskaeraren xedea den kirol jarduerak eragiten baditu eta jarduera hori egiteko beharrezkoak badira:

a) Ordainsarien gastuak, entrenamendu aldiari dagozkionak, entrenatzaile eta begiraleei, baita, hala badagokio, laguntzaileei, mekanikariei eta pareko ezaugarriak dituztenei, gehienez 60.000 euroko mugaraino.

Fakturak jarduera horretako enpresa edo profesional adituenak izango dira; beraz, baztertu egingo dira irabazteko xederik gabeko federazio, klub, kirol elkarte eta antzeko beste batzuetatik datozen guztiak.

b) Ordainsarien gastuak, entrenamendu aldiari dagozkionak, medikuntza, fisioterapia eta masajeen zerbitzuenak, albaitaritza, ortopedia zerbitzuenak eta pareko ezaugarriak dituztenenak, gehienez 30.000 euroko mugaraino.

Fakturak jarduera horretako enpresa edo profesional adituenak izango dira; beraz, baztertu egingo dira irabazteko xederik gabeko federazio, klub, kirol elkarte eta antzeko beste batzuetatik datozen guztiak.

- c) Lizentzia, kanon eta federazio tasen ondoriozko gastuak (abalak eta zigorrak ez), entrenamendu aldiari dagozkionak, gehienez 15.000 euroko mugaraino.
- d) Entrenamenduetarako eta lehiaketarako kirol ekipamendua erostearen ondoriozko gastuak, 10.000 euroko mugaraino.
- e) Kirol material suntsikorra erostearen gastuak (baloiak, bolak, botika kutxako materiala eta entrenamendurako behar-beharrezkoa den edozein material); gehienez ere, 10.000 euro.

Salbuespen gisa, onartuko dira bertoko kirolarekin lotutako materialak, hertsiki suntsikorrak ez badira ere.

- f) Entrenamenduetarako instalazioak alokatzeak eragindako gastuak, gehienez 30.000 euro.

Emandako datuak, bakar-bakarrik, mailarik goreneko talde absolutuari buruzkoak izango dira. Horren ondorioz, mailarik goreneko talde absolutuaren datuak beste talde batzuenekin nahasten diren datuak ez dira kontuan hartuko balioespenerako eta ez dira onartuko justifikazio moduan.

Laguntzaren zenbatekoa puntuazio baremoaren arabera kalkulatzeko ezin dira gastu konputagarritzat jo honako hauek (aldiz, jardueraren gastuen guztiak zenbatzeko bai jo daitezke gastu konputagarritzat):

- a) Aurreko idatz zatietan konputagarritzat definitutakoen artean sartzen ez diren gastuak
- b) Konputagarrietan sartuta egonik ere haientzat ezarritako mugak gainditzen dituztenak, gaindikinareen zenbatekoan.

6.2.- Apartatu honetako puntuak kalkulatzeko bakarrik, lehiaketaren ondoriozko gastu konputagarritzat ondoko hauek hartzen dira, baldin eta lehiaketa ofizial federatuan egin den eta laguntza eskaeraren xedea den kirol jarduerak eragiten baditu eta jarduera hori egiteko beharrezkoak badira:

- a) Arbitroen, epaileen, kronometratzaileen eta laguntzaileen gastuak, gehienez 5.000 euroko mugaraino.
- b) Parte hartzen duten kirolari eta teknikarien joan-etorrietako (*), mantenuko (**) eta ostatuko (***) gastuak (zuzendariak ez), baita lehiaketako hornidura gastuak ere, gehienez 25.000 euroko mugaraino.

(*) Kirolari, entrenatzaile, ordezkeri eta abarren joan-etorriak (zuzendariak ez), probetarako berariazkoak badira.

Joan-etorriak garraio kolektiboan egin beharko dira, publikoa zein pribatua (autobusa, trena, taxia, etab.).

Garraiatu beharreko pertsona kopurua dela bide ez bada talde garraioa komeni, ibilgailu pribatuan mugitzeak sortutako gastuen ziurtagiriak aurkeztu ahalko dira; balorazioa 0,29.- eurokoa da kilometroko. (D eranskina).

Azken kasu honetan, ziurtagiri bat aurkeztu beharko da (D eranskina), eta horretan agertu beharko dira gidariaren izena, abizenak eta NANA, ibilgailuaren matrikula, abiapuntuko eta helburuko herriak eta egindako kilometroak (joatean eta itzuleran). Aipatutako ziurtagiria eskabidea aurkezten duen pertsonak sinatu beharko du, eta kasuan kasuko kirol elkartearen zigilua izan beharko du.

Aurretik adierazi diren egoeretako edozeinetan, ulertuko da lehiaketa tokirako irteera entitate eskatzailearen egoitza dagoen herritik egiten dela eta, itzulerako bidaian,

irteera lehiaketa egiten den herritik egiten dela eta helduera tokia entitate eskatzailearen egoitza dagoen herria dela.

(**) Kirolari, entrenatzaile, ordezkari eta abarren mantenua (zuzendariena ez), lehiaketa egunetakoa.

Ulertuko da kontzeptu hori lehiaketa egiten den herriari eta lehiaketak irauten duen egunei bakarrik dagokiela; ondorioz, kanpo geratuko dira joan-etorrietan edo lehiaketa egunetatik kanpo izandako mantenu gastuak.

(***) Kirolari, entrenatzaile, ordezkari eta abarren ostatua (zuzendariena ez), lehiaketa egunetakoa.

Ulertuko da kontzeptu hori lehiaketa egiten den herriari eta lehiaketak irauten duen egunei, aurreko egunari eta hurrengo egunari bakarrik dagokiela; ondorioz, kanpo egongo dira aurretik adierazi denetik kanpoan izandako mantenu eta ostatatze gastuak.

Emandako datuak bakar-bakarrik mailarik goreneko eta kategoria absolutuko entitate eskatzaileari dagozkio, Horren ondorioz, ez da onartuko beste pertsona edo talde batzuenekin nahasten den inolako gasturik.

Ez dira hartuko gastu konputagarritzat:

- a) Aurreko idatz zatietan konputagarritzat definitutakoen artean sartzen ez diren gastuak
- b) Konputagarrietan sartuta egonik ere haientzat ezarritako mugak gainditzen dituztenak, gaindikinareen zenbatekoan.

Zeharkako zergek ezingo dute laguntza ekonomikorik jaso berreskuratu edo konpentsatu ahal direnean.

Laguntzak banatzeko puntuazio bidezko banaketa sistema bat aplikatuko da. Horretarako, bigarren oinarrian zehaztutako zenbatekoa erakunde eskatzaile guztiek lortutako puntuen baturaren artean zatituko da. Horren emaitza puntuaren balioa izango da. Laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, puntuaren balioa eta eskaera bakoitzaren puntu kopurua biderkatu behar dira, betiere zenbateko horrek, gainerako diru sarrerak gehituta ez badu gainditzen jardueraren gastua.

Emaitza gisa lortutako kopurua edozein dela ere, honako muga hauek aplikatuko dira:

Jarduera defizitari dagokion muga: gastu guztien eta diru sarrera guztien arteko aldea izango da muga.

2. Gastu konputagarriaren muga: gastu konputagarrien kopuru osoa izango da muga.

3. Eskatutako kopuruaren muga.

Laguntzak aurkeztutako datuekin aplikatuko dira, eta ezingo dira ondorengo urteetarako eskatu.

Ez dira baloratuko egiaztatzen ez diren datuak.

Laguntzak eskatu dituzten erakunde eskatzaileek aurkeztutako datuak benetakoak direla frogatzeko eskubidea izango du fundazioak. Fundazioak egiaztatzen badu aurkeztutako datuak faltsuak direla, datuok etorkizuneko deialdietatik kanpo geratuko dira, eta, hala badagokio, jasotako kopurua itzuli egin beharko da.

Zazpigarrena.- Eskaerak aztertu eta ebazpena ematea

1.- Eskaerak aurkezteko epea amaitu eta gero aztertu eta ebatziko da dirulaguntza eman ala ez.

2.- Espedientea aztertuta, kide anitzeko organo batek egingo du emakida proposamena, hau da, fundazioko patronatuak hautatutako hiru pertsonak osatutako kide anitzeko organo batek.

Kide anitzeko organoak behin betiko ebazpen proposamena aurkeztuko dio fundazioaren patronatuari.

3.- Behin betiko ebazpen proposamena ikusita, fundazioko patronatuaren presidentziak deialdia gehienez sei hilabeteko epean ebatziko du, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik zenbatzen hasita. Epe horretan esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, interesdunek ulertuko dute eskaera ezetsi egin dela.

4.- Dirulaguntza eskaerari baiezkoa eman bazaio, ebazpenean datu hauek agertuko dira: dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua, laguntzaren xede den programa edo jarduera, aurkeztu beharreko agiriak eta zer baldintzatan ematen den. Gainera, ebazpena onuradunei jakinaraziko zaie, bat etorritik urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearenak, 42. eta 43. artikuluetan xedatutakoarekin.

5.- Ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio fundazioa atxikita dagoen saileko diputatuari, hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren hurrengotik aurrera zenbatzen hasita, bat etorritik urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearenak, 122. artikuluan xedatutakoarekin. Errekurtsoaren ebazpena emateko eta jakinarazteko epea hiru hilabetekoa izango da gehienez. Epe hori igaro eta ebazpenik eman ez bada, errekurtsua ezetsi dela ulertu behar da.

Errekurtsoaren ebazpenak administrazio bidea amaitzen du. Haren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 8. artikuluan xedatutakoaren arabera. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatuta.

Zortzigarrena.- Dirulaguntza ordaintzea

Emandako kopuruak, Kirolaraba fundazioaren 2019ko ekitaldirako gastu aurrekontuaren kontura ordainduko dira, bi epetan; lehenengoa, laguntzaren ehuneko 75eko zenbatekoaz, justifikatu beharreko aurrerakin gisa, deialdiaren ebazpena onetsi ondoren; eta bigarrena, onetsitako zenbatekoa osatu arte, 9. oinarrian jasotzen diren agiriak aurkeztu eta gero.

Ordainketa ezingo da egin harik eta erakunde onuraduna Gizarte Segurantzarekiko eta zerga betebeharrak betetzean egunean egon arte.

Bederatzigarrena.- Justifikazioa

Dirulaguntzen justifikazioa egin beharko da Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuaren, Euskara, Kultura eta Kirol Sailak emango dituen dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartzen dituenaren, hamargarren klausulan ezarritakoaren arabera.

Laguntzen erakunde onuradunek, 2019ko irailaren 30ean bukatuko den epean, agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Memoria-likidazioaren inprimaki normalizatua, behar bezala beteta eta urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenen, 28. artikuluko 1. eta 2. idatz zatietan araututako justifikazio kontu erraztuarekin batera. Nahitaez bete behar da II. eranskina.

Honela osatuko da justifikazio kontu erraztua:

1. Dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak bete direla egiaztatzen duen txostena, burututako ekintzak eta lortutako emaitzak adierazita.
2. Jardueraren gastu guztien zerrenda sailkatua, hau da, jardueraren aurrekontu osoa; zerrendan jarri beharko dira hartzekoduna, gastuen agiria edo faktura, zenbatekoa, jaulkipen data eta, hala badagokio, ordainketaren data.
3. Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako diru sarreraren eta dirulaguntzen xehetasunak, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

4. Hala badagokio, itzulketaren ordain gutuna, aplikatu ez diren gerakinen kasuan; bai eta horietatik eratorritako interesena ere.

Justifikazio kontu erraztuko araudi aipatuan jasotako laginketarako, eta dirulaguntza zuzen aplikatzen dela egiaztatzeke arrazoizko ebidentzia lortze aldera, honako hauek aurkeztu beharko dira: seigarren oinarri arauan xedaturiko gastu konputagarrien justifikazioa zerrenda batean behar bezala jaso, seigarren oinarri arau horretan xedaturiko zenbatekoetan gehienez ere; horretarako, gastua justifikatzen duten jatorrizko fakturak aurkeztu beharko dira. Aitzitik, 500,00 euro baino gehiagoko fakturak aurkeztuz gero, ordaindu egin direla egiaztatu beharko da.

Organo izapidegileak egokitzen jotzen dituen agiri, argibide, egiaztatze eta faktura guztiak eskatu ahal izango dizkie erakunde onuradunei, dirulaguntza behar bezala erabili dela egiaztatu ahal izateko.

Beharrezkoa da fakturak aurkeztea jatorrizko formatuan; hortaz, ez dira halakotzat joko fax bidez, datozenak, eskaneatuta daudenak, posta elektronikoko bidez bidaltzen direnak, ezta antzekoak ere.

Gastuak justifikatzeko ez dira onartuko, besteak beste, datu hauek argi eta garbi azaltzen ez dituzten ordainagiri edota fakturak:

- Jaulkitzailea, berorren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Hartzailea, berorren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Gastuaren xedea.
- Data.
- Faktura zk.

Fakturak ordaindu direla frogatzeko, agiri hauek onartuko dira:

- Bankuko jatorrizko ziurtagiria; bertan agertuko dira, gutxienez, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren erakunde onuraduna. Ziurtagiri hori izenpetuta aurkeztuko da, eta/edo bankuaren zigilua daukala.
- Jatorrizko fakturaren jaulkitzaileak sinatutako eta/edo zigilatutako ziurtagiria; bertan agertuko dira faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data.
- Posta arruntez jasotako banku laburpenak, jatorrizkoak.
- Kontu korronteen libreten kopia konpultsatua, mugimenduak ageri dituenak.
- Posta elektronikoz jasotako banku laburpenak edo transferentzia agindu telematikoak, ordainketa edo transferentzia egin duen bankuaren zigiluarekin.
- Jatorrizko fakturak, enpresa jaulkitzailearen zigiluarekin, ordainduta daudela adieraziz.
- 110 ereduak, banketxe zigiluarekin, edo 110 ereduak eta banketxeko ziurtagiria.

Langileen gastuei dagokienez, aukera hauen artean edozeinekin justifikatu ahal dira:

- Jatorrizko nominak, langileak izenpetuak, non izenpearen bidez langileak soldata jaso duela adierazten baita.
- Langileak izenpetutako jatorrizko idazkia, non agertuko baita langileak kobratu egin duela eta kobratutakoa zein hilabetekoa den.
- Langileen jatorrizko 10-T agiriak.
- Nominen ordainketa pilatuaren banku laburpen jatorrizkoa, eta, harekin batera, enpresa/entitate onuradunaren ziurtagiri bat, azalduz ezen dagozkien langileen nominak

transferentzia jakin baten kontura daudela ordainduta, adieraziz zein zenbateko dagokion langile bakoitzari aurkeztutako hileko bakoitzeko.

- TC1. GSren aplikazioaren bitartez sortutako dokumentua (RED sistema), hatz aztarna digitalarekin edo horren kopia konpultsatu gabearrekin edo jatorrizkoa, GSren bulegoetan aurkeztuz, finantza erakundearen baliozkotze zigiluarekin edo, hala badagokio, kotizazio ordainketen laburpenarekin.

- TC2. GSren aplikazioaren bitartez sortutako dokumentua (RED sistema), hatz aztarna digitalarekin edo horren kopia konpultsatu gabearrekin edo jatorrizkoa, GSren bulegoetan aurkeztuz.

PFEZaren gainean egindako atxikipenak diruz lagundu daitekeen gastutzat jotzeko, aurkeztutako hiruhileko 110 ereduak, PFEZaren gaineko atxikipenak eta konturako diru sarrerak eta haien ordainagiriak aurkeztu beharko dira.

BEZaren kuota jasanak diruz lagundu daitekeen gastutzat jotzeko, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren edo zerga egoitzaren kokalekuko zerga administrazioaren ebazpena aurkeztu beharko da. Ebazpen horretan, onartuta egongo da erakundearen izaera soziala, BEZaren Foru Arauaren 20.3 artikuluan aurreikusitakoa, BEZaren Foru Arauaren 20.1 artikuluan 13. paragrafoak jasotzen duen zerga salbuespena aplikatzeko.

Fundazioan aurkeztutako jatorrizko egiaztagiriei zigorria jarriko zaie, eta bertan justifikatutako eta eskatutako dirulaguntza agertu beharko da, baita egiaztagiriaren zenbatekoa dirulaguntzari osorik edo zati batez egozten zaion ere. Azken kasu horretan, gainera, dirulaguntzak eragindako zenbateko zehatza adierazi beharko da.

Emandako datuak, bakar-bakarrik, mailarik goreneko talde absolutuari buruzkoak izango dira. Horren ondorioz, ez da onartuko mailarik goreneko talde absolutuaren datuak beste talde batzuenekin nahasten den inolako daturik.

Jarduera egin eta gero, aurkeztutako datuetan edozein aldaketa eginez gero, horrek eskabidean adierazi ziren eta dirulaguntza kalkulatzeko oinarri moduan erabili ziren datuetan aldaketarik sortzen badu, hura berriro kalkulatu beharko da, deialdi honetan jasotzen diren irizpideen arabera, eta ezin izango da, inola ere, hasieran bideratutakoa baino handiagoa izan.

Adierazitako epea igaro eta lehen aipatutako agiriak aurkeztu ez badira, ordainketa kredituak baliogabetu egingo dira, eta "konturako ordainketa" gisa jasotako dirua itzultzeko espedienteari hasiera emango zaio.

Hamargarrena.- Fundazioaren publizitatearen presentzia erakunde eskatzailean

Erakunde eskatzaileak 2019an zehar fundazioaren diru laguntza jasotzekotan bakarrik, Kirolaraba fundazioaren publizitatea agertzen delako frogara jaso beharko du entregatu beharreko dokumentazioan (kirol ekipazioa, kartelak, webgunea edo beste edozein hedabide).

Hamaikagarrena.- Erantzukizunak

Onuradunak bere gain hartzen ditu programa eta/edo jarduera egiteko sor litezkeen erantzukizunak eta indarrean dagoen legediak haren garapenerako eskatzen dituen baimenak eskatu beharko ditu.

Hamabigarrena.- Publizitatea.

1.- Deialdi hau ALHAOn iragarki bat jarritz jakinaraziko da. Horrez gainera, fundazioaren webgunean ere jarriko da: www.kiolaraba.eus

2.- Deialdi honetako dirulaguntzen erakunde onuraduna behartuta dago berriaz eta modu argian adieraztera diruz lagundutako jarduerari buruzko argibide, publizitate eta propaganda orotan Kirolaraba fundazioak babesa eman duela; edonola ere, laguntza ekonomikoa ematen zuen ebazpenean zehazten ziren baldintzetan egingo da hori.

Hamahirugarrena.- Interpretazioa.

Deialdi hau interpretatzean sor daitekeen edozein zalantza Kirolaraba fundazioak ebatziko du.